

GARAZI BELAGILEA

Zugarramurditik ez oso urrun, entzuteko dohain apartak zituen Garazi andrea bizi zen, mendi muino baten magalean gordetzen zen karabana batean, menda belar zelai batek zeraman bidean gora. Ilargi argitan munduko oihartzuna biltzen omen zen bertan.

Zugarramurdiko azken festan Garazik egin zidan gonbidapena ez zen txantxetakoa izan. Sona handikoa zen Garazi belagilea eta nigana zuzendu zenean oso kezkatuta etorri zitzaidan osasunez ez zela ondo eta, gainera, "azti-petrikilo-ijitoen artean segidarik ez dago! Hau da fundamentua!!"

Festara joandakoen artean balekorik ote zegoen ari zen testatzen, eta ohi zuen legez, esku batekin ahoa itxi eta bestearekin bi belarriak itxi zizkidan, eta bere belarria paparrean itsatsi zidan.

-Barrua isil duzu. Prest zaude. Baleko dirudizu. Zatoz nire etxera. Beran bizi naiz.

Garazi anderearen karabanaren atea ireki zitzaidanean sorgin-ehizaren azken arrastoaren aurrean nengoela sumatu nuen. Ni bezalako poeta nostalgiko batek ezin zuela zuloa muinago jo pentsatu nuen, izan ere, lebitatzen nengoen, lurrak milimetroak goratua ia, Garazi andere belagilea aurrean neukala, petrikiloa, aztia, buhame, sorgina, ijitoen artean ijito eta erregina.

Karabanaren barrunbe hartan pilatzen zen energia guztiaren artean belarri eta sudur mintzetan igarri doinu gardenak eta lurrin sarkorrek gatibatu ninduten. Begi aurrean nuen adineko etxeko anderea praka bakeroetan zen, surfisten antzera sandalia batzuk jarrita, eta ezpainenetan zuen zigarroaren kea begiak

kliskarazi zizkion, esku batekin ateari zabal eutsiz, bestearekin bermutha edo Ricard zitekeen edalontziari eusten ziolarik.

Karabana hartan zuen Garazik habia, sukaldea, egongela eta logela. Musika tresnak zeuden bazterretan (txalaparta eta txirula bat, adarra, arrabita, gitarra eta tronpeta herdoildua) jan pusketak eta edari eta ontzi eta lapikoak nonahi, irrati zaharra eta 80 hamarkadako disko jogailua Long Play disko pilak inguratua.

-Hara, entzuten ari zaren kantaria, beratarra duzu -esan zidan-, Laboa handiaz geroztik euskal kantarien artean noizbait izan bada bat haxe da euskal soul kantaria. Seko maiteminduta nauka, bestalde, baina tunantea izaki, ezin negoziarik berarekin. Halere, pieza ona da, eta bagenuke zer ikasia berarengandik barruak dioenari entzun behar baitzaio kantari izateko, nor izateko, barre ozenak egiteko. Izan ere, gezurra franko dabil bazterretan, ume!

Garazi barrezka hasi zen, ozen, oso ozen. Lebitatzen hasi zen airean hegaka, braust! jausi zen arte.

-Ikusten duzu zein diren sorgin izatearen ajeak....! Asko dira etorri zaizkidanak nireak ditudan trikimailuak ebastera, nik dena dakidalakoan. Zarena zarelakoa, entzun zeure barruari.

Erranak baino arranak hobe, hitzak baino bizi-hitzak hobe -zioen Garazik-. Bagabigahiga, apo hizkerak, eta Ikimilikiliklik. Zeper dupuzupu pepentsapatzeppen bapa? Bapazteper gaparapa! Bazterrago? Akaso hobeto.

Erretzailea amorratua zen Garazi, eta suak pizten zuen, suari entzuten zion,

xuxurla edo garrasika... Hil argiak berriz baretzen eta hezten. Txoriak isildu eta gaua maite dut -aitortu zidan.

-Ume, entzun nahi zaitut, zure dohaina hitza baita, nire entzumena apaldu orduko.

Beste zigarro bat piztu zuen Garazik kafea, kea eta suaren zurrunbiloan entzutea dela bizitzeko aztikeriarik handiena esanez, hartara sortu zela hizkuntza, *Herrena plat olio zopa kikili salda* bezalako hitzetan gure arbasoak ari zaizkigula hitz egiten.

-Kafea gustatzen? -esanez eskuak igurtzi eta galtzagorrien txinpartaz piztu zuen sua kafea egiteko.

-Baina isil nadin ez baitut neure burua baino entzuten, eta kontaidazu hitz egiten ote diozun gauez hontzari, eta errekek xuxurlatzen ote dizun berririk, hizkuntza zaharrak dei egiten ote dizun, lamia jauzika dabilkizun gauez... Zain naukazu, entzuten adi-adi, nola suak hitz egin eta garrari entzuten diodan, nola entzun nion neure senari, aspaldi, zu bezalakoa nintzela.

Orduan, Garazi belagileari burura zetozkidan poesia guztiak errexitatu nizkion zaharretik hasita gaurdainokoak gau luzea motz egin zen arte. Lo gozoan utzi nuen goizalban eta alde egin nuen karabana ingurutik eguzkiaren lehen printzekin batera, Zugarramurdiko kobazuloan egonaldia egitera, hala ohartu baininduen Garazik nahi gabe ere bertako egingo nintzela eta. Bertan nauzue harrezkero Garazi belagilearen oinordeko.